

SAGARDOA

P8-4

berria

TESTUAK: ION ARANBURU

Txotx!

Txotx, zost eta ploust!



ION LURBE / ARGITATZEA




Astigarragako Udala

SAGARDOAREN
BIHOTZA
ASTIGARRAGA



Sagardoa, Euskal Herriko edari tradizionala?



DOLARE zaharretan lana nola egiten zuten erakutsi zuten Igartubeiti sagardotegian. GARI GARAIALDE / ARGAKZI PRESS

Sagardoa beti jo izan da gure kulturako edari tradizionaltzat. Sagardoaren jatorriari buruz teoria asko egin dira; baina, kontuak kontu, Euskal Herriko baserri gehienetan aurki genitzakeen dolareak orain urte batzuk

 Sagardoa, berez Euskal Herriko edari tradizionaltzat jotzen dugu gutariko askok. Eta gipuzkoarrek, are gehiago. Nor ez da joan kanpotik bisitan etorritako lagunekin sagardotegi batera afaltzera? Gure ohituraren isla baten moduan ikusi izan



OSIÑAGA AUZOA - Tel.: 943 55 68 94
HERNANI

OTSUA-ENEA

TOLARE - SAGARDOTEGIA

— Simon Etxeberria —

▼ Sagardoa
botilan salgai
urte osoan



dugu beti sagardoa, eta hala transmititzen saiatzen gara.

Baina sagardoa Euskal Herriko edari tradizionala izan arren, ez dago datu zehatzik bere jatorriari buruz. Teoria andana sortu izan da gai honen inguruan. Batzuek diotenez, sagar landarea Afrikatik sartu zen Euskal Herrira, arabiarrek ekarri zigutela diotenak ere badira. Eta, nola ez, erromatarrek sagardogileak zirela diotenak ere bai. Euskaldunoi horiek irakatsi omen ziguten sagardoa egiten. Plinio erromatarren idatzi baten gauzak pixka bat argitzeko balio izan du. 80. urtean euskaldunek jaki gozo bat egiten zutela dio idatzi horrek, iragasagarrenaren modukoa. Eta jaki horrek txikitutako ezkurra, ura, ezti eta sagardoa zituen. Beraz sagardoa Euskal Herrian 80. urtean existitzen zela badakigu. Baina sagardoaren inguruan aurkitu diren lehen idatziak XI. mendekoak dira. XV. mendean, foruetan, sagardoaren inguruko legeak eta agiriak aurki ditzakegu.

Baserrietako dolareak

Sagardoa bezain tradizionalak dira baserriak Euskal Herrian. Duela pare bat mende baserri zosiak zeuden Euskal Herriko lurraldeak. Abereak eta baratza zaintzeaz gain sagardoa egiten zuten inguruko baserri gehienetsuetan, jatordu guztietan



OHITURA Lehen Euskal Herriko baserri guztietan egiten zen sagardoa, jatorduetarako

mahai gainen egoten zen edaria zen-eta. Izan ere auzoan beti egoten zen dolarea eta matxaka zituen baserriaren bat. Sagardoa egiteko beharrezkoak ziren bi makinak. Normalean, baserri horretako nagusiak ez zuen ko-bratu ohi izaten bi makina horiek erabiltzea. Trukean, ordea, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten.

Sagardoa, orain antzera, urtean behin egiten zen. Sagarra jaso ondoren, sagarra jo egiten zen matxakan, gero dolarean ipintzeko txikitutako puskak. Sagarra ondo estutu ondoren zuen zuku guztia ateratzeko. Lehen estualdi horietatik ateratako zukua izaten zen onena eta, berau erabiltzen zuten sagardoa egiteko. Sobratzen zenarekin berriz, ura nahasten zitzaion pitarra egiteko. Pitar hori erabiltzen zuten eguneroko edari moduan, sagardoa egun berezietan edateko utzita.

Sagardoa egitea amaitu zutela ospatzeko festa edo erromeri moduko bat egin ohi zuten baserriarrek. Herriko plazan edo bestela baserriaren atarian biltzen ziren. Janaria ekartzen zuten eta egin berria zen muztioa edan. Muztio hori 100 bat litroko upelean gordeta egoten zen eta hura amaitu arte edaten zen. Jateko berriz, ardiren bat edo bakailaoa izan ohi zuten. Festa horiek erakargarriak bihurtzen hasi ziren eta sagardoa egiten zuten baserri horietara joan ohi zen jendea, egun-pasa egitera. Batek baino gehiagok sagardo gehiegi edan eta bertan lo gelditu behar izaten zuten.

Festa guneak bihurtzen hasi ziren. Bertara gerturatzaren zirenak jokoan edota boloetan aritu ohi ziren, nork birla gehiago bota, sagardotegi gehienek zuten eta bola tokia. Bertsolarien zat ere toki paregabeak bihurtzen hasi ziren. Baita apustu entzate ere. Batek baino gehiagok galdu zuen bere baserria sagardotegietan egindako apustuetan. Baina sagardotegiak 70eko hamarkada arte gizonen tokiak ziren. Hamarkada horretan etorritako emakumeen berdintasuna zela-eta hasi ziren lehen emakumeak sagardotegietara joaten.

sagardogileen apustua

Txotxetik botilara

Sagardoa, berez txotxetik edaten den edaria da, baina egun gero eta sarriagotan edaten da botilatik. Horixe da egungo sagardogileen apustua, botilako sagardoa.

Sagardoa, Euskal Herriko edari tradizionala da. Tradizio horretatik dator hain zuzen ere txotxetik edateko ohitura. Sagardotegi guztietan aurki ditzakegu kupel handiak, sagardo desberdinez betetakoak, txotx egiteko prest daudenak. Baina ohitura hori gero eta gutxiago

dago. Egungo sagardogileen apustua ez dago kupel horiei begira. Izan ere, sagardo denboraldia amaitutakoan sagardotegietara ez dator joaten eta sagardogileek ezin dute urte guztia sagardo denboraldiaren zain egon. 70eko hamarkadan hasitako moda da sagardoa txotxetik edatea, eta gaur egun oraindik mantentzen den moda da baina txotx horretatik kanpora zentratzen da egungo sagardogileen apustua, botilako sagardoa.



Oialume bidea - Tel.: 943 33 33 33 - 20115 ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA

ALDEA NABARITUKO DUZU



Sagardo Natural Orekatua, lasto kolore eta fruitu zaporezkoa, edozein jakirentzat egokia.

GURUTZETA TOLARE-SAGARDOTEGIA, BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATURELAN

Gurutzeta Sagardotegia egina. Oialume Bidea, Astigarraga, Gipuzkoa.
Tel.: 943 55 22 42 - Fax: 943 31 10 01 - Posta elektronikoa: gurutzeta@gurutzeta.com
www.gurutzeta.com

LIZEAGA

Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa !
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobe.

EDAN ETA EMAN
EDATERA



Arreta handiz egin beharreko lana

Azken urte hauetan sagardoa egitea asko teknifikatu duten arren pauso guztiak ongi jarraitu behar dira sagardo ona atera dadin

Sagardogileentzat sagastiak ezinbestekoak dira eta ongi baino hobeto zaintzen dituzte zuhaitz horiek, bertatik ateratako sagarrekin egiten dute eta sagardoa. Sagarrak ateratakoan sagar horiek guztiak bildu egin behar izaten dira. Denak bildu ostean, sagar onak eta ustelak banatzen dituzte, sagardoa egiteko sagar egokien hautaketa egin. Banaketa hori egin ostean sagar guzti horiek garbitu egiten dituzte eta gero sagarrak txikitzeko makina batean sartu. Birrindutako sagar horiek gero dolarean sartzen dituzte. Han sagarrak zapaldu egiten dira, sagar zukua edo muztioa atera arte. Hortik ateratako zukua upel txiki batzutan sartzen dute tenperatura pixka bat hozteko, 4-5 gradu arte. Ten-

peratura hori jortutakoan egiten da bigarren aldaketa, upel handiagoetara, bertan irakiten edukitzea.

Upelera irakitera

Bildutako muztio guzti hori upeletan sartzen dute bertan irakiten egiteko. Irakite hau da sagardoa egiteko pausorik garrantzitsuenak, bertan baitago nahi bezalako sagardoa ateratzeko giltza. Bi irakinaldi egiten dira. Beroaren eta upelak duen tenperaturaren arabera kalkulatzeko irakite prozesu hau. Beraz, ezin da denbora zehatz bat eman, tenperaturaren arabera desberdina izaten delako. Irakite prozesu horretan, muztioaren azukrea alkohol eta anhidrido karboniko bihurtzen da. Irakite

prozesu hau 20-25 gradu artean egiten da.

Upelak ere garrantzi handia du irakite prozesuan, asko alda baitezake sagardoa irakite prozesuan. Upelak tenperatura egokian egon behar izaten du. Sagardoak Legamia asko izaten ditu, eta legamia horiek muztioak duen azukreari esker bizi dira. Mikrobio horiek dira gero alkohola eta anhidrido karbonikoa sortzen dutenak. Upelak tenperatura txarra badu legamia txarrak sortzen dira eta ondorioz sagardo txarra ateratzen da.

Prozesu hori guztia egindakoan sagardoa egitea amaitu da. Orain bi aukera izaten dituzte sagardogileek: Upelean sartu Txotx garaian zehar edateko, edo bestela botiletan sartu jatekoei saltzeko. Botilako sagardoa




SAGAR piloak egiten dira sagardoa egiterakoan, sagardotegi atarrietan.



GAZTANAGA
TOLARE-SAGARDOTEGI

Tel.: 943 59 19 68

Buruntza auzoa z/g • Irurain baserria
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)



asko saltzen da eta sagardo ekoizle gehienak sagardoa botilaratu egiten dute. Txotxerako ere gorde egiten dute baina ekoiztutako sagardoaren %10a baino gutxiago izaten da upeletan gordetzen dutena.

Botilaratzea ere arretaz


Botilaratze prozesu hau ere kontuz egin beharreko lana da. Garbitasuna ezin besteko elementua da. Ekoizle batzuk botila berriak erabiltzen dituzte baina beste batzuentzat hori nahiko garestia da eta lehendik dituzten botilak erabiltzen dituzte. Botila horiek ongi garbituta egotea ezin bestekoa da eta ekoizle gehienak botilak garbitzeko makinak izaten dituzte lan hori errazagoa suertatzen.

Botilak garbitu ostean betetzeko lana asten da. Horretarako makina berezi bat izaten dute, hodi baten antzekoa. Hiru motatako hodiak izaten dira: isobarikoa, karbonikoa eta hodi karbonikoetako. Gero botilak estaltzeko makinan sartzen dituzte. Makina horrek botila

guztiei kortxoak jartzen dizkiete. Azkenean, legeak agintzen duena egiteko garaia heltzen da, botila guztiei etiketak jarri, etiketarik gabe ezin baita sagardorik saldu. Etiketak jarritakoan sagardoa saltzeko prest dago. Furgonetari deitu eta eskatutako botila guztiak emango dizkiete erosleari.

Sagardoa egiteko prozesua konplikatu samarra da eta makineria asko eskatzen du. Makineria hori garestia izaten da eta toki asko hartu ohi du sagardotegietan. Askok beharrezko makineria guztia sartzeko tokirik ez dute izaten. Dena den, urte asko irauten duten makinak izaten dira horiek, eta teknifikazio guzti horri esker, sagardoa egitea errazagoa bihurtu da sagardogileentzat.

Baina, nahiz eta makinak oso onak izan, sagarrak txarrak badi-ra edo sagardoa egiteko prozesuan zerbait gaizki egiten bada, ezin da sagardo onik atera eta egindako lan guztira pikutara joaten da sagardogileentzat. Dena ez da eta teknologia izaten.



SAGARRAK

Sagarrak bildu eta garbitu egin behar dira lehenik eta behin, txarrak baztertuz

DOLAREAK

Dolare tradizional nahiz berrietan, sagarrak birrindu eta muztioa ateratzen da

UPELETARA

Hasieran metalezko upeletan irakiten dute zukua, eta gero, egurrezkoetara eraman



JOXE ANGEL GAZTAÑAGA

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko Lehendakaria

«Sagardoa ona izatea da gure helburua»

🍷 Joxe Angel Gaztañaga, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakari berria da. Kargua, duela gutxi hartu du. BERRIAREKIN egon da Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteari buruz hitz egiten, Elkartearen nondik norakoak argitzeko. Sagardoren gorabehera buruz ere aritu da, Gaztañaga Sagardotegiko nagusia da eta.

Kargua hartu berri duzu. Nolanautu zaituzte lehendakari?

🍷 Bai, duela oso gutxi hartu dut. Norbaitek izan behar zuen lehendakaria eta zuzendaritza batzordean nire izena hautagai bezala ematea pentsatu zuten. Oso jende gutxi egoten da prest horrelako karguak hartzeko, berez izaten den baino lan gehiago edukitzea ekartzen duelako. Bozketa bat egin zen zuzendaritza batzordean, lehendakari izateko prest geundenen artean eta niri egokitu zitzaidan. Ahal dudan ondoen egiten saiatuko naiz nire lana.

Zer suposatzen du elkarteko lehendakaria izateak?

🍷 Lan asko eta konpromiso asko suposatzen ditu, gisa honetako kargu guztien antzera. Baina, denon borondatearekin aurrera aterako gara eta uste dut.

Zer lan egiten du zuen elkarteak?

🍷 Sagardoren promozioa eta elkarteko kideei sortzen zaizkien arazoak konpontzea da izaten dugun lanik nagusia. Elkarre garen momentutik denok batera indar handiagoa dugu edozein arazoren aurrean. Iritzi guztiak entzun eta gero, denon artean erabaki zer egin be-

har den arazoei irtenbidea emateko. Ikerketak eta sagarraren prezioekin eta antzeko lanekin ere aritzen gara. Dirulaguntzak eta elkarte bezala eskatzen ditugu eta gero elkartekoen artean banatzen ditugu, administrazio gisako lanak erraztearren.

Zenbat bazkide zarete? 🍷 65 bazkide gara elkartean. Gipuzkoa osoko sagardotegiak gauden arren gehientsuenak hemen ingurukoak gara. Hernani Astigarraga ingurukoak. Izan ere sagardotegi gehienak hemen inguruan biltzen gara.

ABANTAILAK

«Batera egin ahal diren gauzak halaxe egiten ditugu, lana errazteko»

XEDEA

«Sagardoa ona izatea eta lan prozesua erraztea dira gure helburuak»



ION URBE / ARGAZKI PRESS

Zer suposatzen du bazkide izateak? 🍷 Kanpoko sagarren erosketak eta elkarte bezala egiten dira, diru laguntzak eta administrazio lanak ere elkarte bezala egiten dira. Azken finean, batera egin daitezkeen gauzak batera egiten ditugu, guztion lana erraztearren eta baldintzak hobetzeko.

Gipuzkoan bakarrik al dago sagardotegien elkarteak? 🍷 Elkarre bera bai, 65 bazkiderekin. Gipuzkoatik kanpora ere badaude taldeak sagardoren ingurukoak. Guztiekin ditugu ha-

rreremak, denok gauza berean ari gara eta lanean.

Zer nolako harremana duzue? 🍷 Harreman ona dugu.

Guk zerbait lortzen badugu guztiontzako lortzen dugu, ez elkarteko kideentzat bakarrik. Eta haiek ere zerbait lortzen dutenean berdin egiten dute. Denok sagardogileak gara eta helburu berdina dugu: sagardoa ona izatea eta lan prozesua erraztea, hain zuzen ere.

Egun nola dago sagardotegien egoera? 🍷 Hasiara batean boom handi bat egon zen sagardotegiekin. Orain ere jende asko etortzen da sagardotegietara.

Baina, orain jendea erakartzen duten gauza asko daude, eta horietara ere joaten da jendea, ez baikaude sagardotegiak bakarrik. Hala ere, oraindik ere jende asko etortzen da sagardotegietara eta nire iritziz gauzak txukun eta ondo egiten jarraituz gero sagardotegietara jendeak etortzen jarraituko du. Sagardogoxo eta ona eginez gero jendea etorriko da.

Eta etorkizunera begira? 🍷

Nik uste, gauzak ondo egiten jarraitzen badugu aurrera egiteko moduan izango gara. Oraindik 2004an gaude eta hasi bakarrik egiten gara. Optimistak gara eta optimistak izaten jarraitu behar da gerora begira ere.

Eta aurtengo denboraldiari begira zer espero duzu? 🍷

Nik uste dut sagardoa ona izango dela, gorputz ederrekoa. Usain ederra izango du. Kolorea, agian pixka bat horiagoa izango da, baina sagardo goxoa izango da aurtengoa.

ALTZUETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

Estabimenduaren Altxura Sagardotegia S.L. Hernani (Gipuzkoa) • N.R.E. 529193

Data zehatzik ez dakigunez, Altzuetan sagardoa egiten aspaldi hasi ginela esan behar... aurreko mendearen hasierarako bai behintzat. Sagardoa egiteko, tankera guztitako sagarrak erabiltzen ditugu, gazi zein gozoak, garratzak eta mikatzak, bakoitza bere neurri jakinean. Sagur guztiak hoiak tajuaz nahastetik etortzen da gero, hain estimatua den Altzuetako Sagardoa. Udako beroaldiak pasa eta gero, udazkenak ekarri digu urtero bezalaxe, Sagardo urte berria. On egin deigula janak, eta kalterik ez edanak! Txotxi!

**OTSAILTIK
AURRERA
IREKIA**



tel. 943 55 15 02 - Altzuetako Sagardotegia - Osinaga Auzoa, 7 - 20128 Hernani - Gipuzkoa

Atsegin handiz, Idiazabal gazta aurkezten dizugu,
sentimententzat opari. Geure-geurea da, naturala
eta tradizionala. Nortasun handikoa da jatorriz,
benetakoa, mokorik finenen gozagarri.

EZAGUTU EZAZU. GUSTATUKO ZAIZU ETA.



IDIAZABAL
Jatorri Izenaren Garantiarekin





BERTAKO sagar askorik ez dago aurten, udako lehortearen ondorioz; beraz, kanpotik ekarri beharko dute sagardoa egiteko behar den sagar gehiena. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Garaiz aurretik eroritako sagararak

Iaz ekoitzi zen sagardoaren %40 bertako sagarrarekin egin zuten. Aurten, %5 ingurukoa izango da bertako sagarrekin ekoitzitakoa



Sagardotegi
IRUNAZARRA
BAR-RESTAURANTE

Erreserbak: 948 22 51 67
Mercaderes, 15

IRUÑEA

Aurtengo uda gogorra izan da nekazariarentzat. Beroak kalte ugari sortu dizkiete. Baserri askotan animalien izakia janaririk gabe geratu dira eta nekazariak gordezen ari zirena eman behar izan diete. Sagardogileentzat ere, uda gogorra izan da, iazkoarekin alderatuta. Iaz, Gipuzkoan sagardoa egiteko erabiltzen zuten sagarraren %40 inguru bertakoak zen. Izan ere, sagardoa egiteko erabiltzen den sagar asko bildu zuten sagardogileek. Aurtengoan, ordea, zifra horiezinezkoa den amets bat bilakatu zaie. Aurtun %5 inguruan ibiliko da sagardoa egiteko erabiltzen den bertako sagarra. Beraz, lehengo urtean baino sagar gehiago erosi beharko dituzte atzeritik, sagardoa egin ahal izateko.

Hasiera batean sagarra bazen arren, sagarra garaia baino lehen desegin zaie. Abuztuaren aurrenerako landutako sagarraren erdia erori egin zen. Beste erdia, berriz, irailera amaitu egin da. Aurtun oso sagar gutxi zen inguruko sagastietan, lehortearen ondorioz. Iazko urtean egindako eurite haiek, on egin zieten sagardogileei. Sagastietan sagarra franko ikusten zen eta. Eguraldi txarrekin sagarrak denbora gehiago behar izaten du helitzen eta erortzen. Eguraldi onarekin berriz derrepente jausten dira sagastitik, beroaren eraginez urtuta.

Lorea ateratzen hasten denean eguraldi ona behar da, ahal bada euririk gabea, eguraldi goxoak. Lorea ateratzerakoan egiten duen eguraldian alde handia dago eta. Hor eguraldi egokia egitea garrantzitsua da, baina gero ere jarraipena izan behar du, bestela nahiz eta hasiera ona izan, emaitza txarra izan daitekeelako. Euri pixka bat egin behar du eta baita eguzki pixka bat ere, azukrea izan dezan, eta baita fruitua ateratzeko ere. Bestela sagardoa gazi xamarra ateratzen da.

Abuztuaren garrantzia

Abuztuan egiten duen eguraldiak zer esan handia du sagardogileentzat, eguzkia tamaina egin behar baitu eta euri pixka bat ere bai. Euskal Herrian uda normalean izaten den modukoa, euri apur batekin. Goizean ihintz ederrekoak, gero 25 bat gradu inguruko tenperatura, 30 gradutatik pasa gabeak. Giza kioi gertatzen zaigun bezala gertatzen zaie, bero handiak kalte egiten digun bezala, sagastiei ere kalte egiten die. Aukeran jarritz gero, sagardogile batzuk nahiago izango zuten iazko uda, sagar kopuruaren aldetik, baina iazko sagardoak gozo puntu bat falta zuela diote sagardogileek.

Eguzkiak ematen die goxo puntu hori falta omen zuen.

Bero horren ondorioz aurtengo sagastiek produzitutako asko pikutara joan zaie sagardogileei eta, beraz, sagardoa egiteko beharrezkoa duten sagardoa atzeritik ekarri behar izan dute. Galizia eta Asturias aldean sagar asko izan zela pentsatzen zuten eta hara jo dute sagar bila. Baina, han ere antzeko panorama topatu dute. Alde horretan ere lehortea egin du eta hemengo ondorio

UZTA

Hasieran uztak itxura ona zuen arren, sagastiek ekoiztutako sagar asko pikutara joan dira udako bero latzaren ondorioz

berdinak ekarri zizkien sagardogileei, soilik hilabete eta erdi lehenago. Han ere bere denbora baino lehenago erori zaie sagarra sagardogileei. Hala ere, han erosteko modua izan dute, baina ez espero zuten adina. Falta zitzazkien sagarrak erostera Frantzia aldera jo behar izan dute. Han uda aspaldiko beroenetakoa izan den arren, hemen baino bero gutxiago egin du eta ez dituzte hainbesteko kalteak jasan nekazariak.

Hemengoa gozoagoa


Aurtengo denboraldiko sagardo gehiena atzerriko sagarrarekin egindakoa izango da. Bertako sagarrarekin egindakoa nahiko erraza atzemango dela diote sagardogileek. Egin duen beroa dela eta, sagarra biltzea lortu dutenek, iazkoa baino sagardo gozoagoa izango dute. Izan ere, lehengo urtean eguzkiak zorretan utzi zuen gozotasuna ekarri baitie aurtengo sagarrei.

SARIA

Gure bakailaoak eta zure talentuak merezi dute saririk

6.000 €

Bakilao giraldoak dei egiten dizue bere produkturen batekin egindako Plater Onenari Saria II. Ediziora; urteroko sari hori **6.000 eurokoa** da eta herrialde jakin bateko sukaldari bati emango zaio. Horretarako irizpide hau erabiliko da: sukaldaritza sortzailea eta berritzailea baloratuko da zentzu orokorrean betiere; Epaimahia ikuskatzaile gastronomiko eta adituek osatuko dute.



Bakailao-xerrak, olliba beltzak eta antxoak
tomate zukuz keztatuak
(Yandiola jatetxea. Bilbo)

I. edizioako garailea
GIRALDO
BAKAILAO PLATERIK ONENA

BETE BEHARREKOAK

- Saria irabazi ahal izango dute soil-soilik Giraldo bakailaoarekin egindako platerak, eta derrigor jotetxeko kartan azaldu beharko dute 2003ko maiatzaren 1a eta 2004ko martxoaren 30^a bitartean.
- Aurreko betebeharra betez gero herri bateko edozein sukaldarik bere errezeta bidal dezake (argazkia barne) guregana email hau erabiliz: giraldo@bacalao.giraldo.com edo helbide honetara: Gojain industrialdea. San Blas kalea, Int. - 6, 7 eta 8 pabilioiak. 01170 Legutiano (Araba) Gisa horretara ere epaituko da bere errezeta. Epaimahiak hala nahi badu, dagokion ikuskaritza egingo du aurretik egin ez den kasuetan betiere.
- Epaimahiak sormena epaituko du batik bat. Bemikuntza teknikoa eta kontzeptuala. Tradizioa nola interpretatu (hala balegokio), baita plater egoki bati garrantzia ematen dioten aurkezpena eta gainerako ezaugarriak ere.
- Plater garailea eta bere argazkia (antolamenduak egingo du) hedabideetara zabaldu ahaliko du enpresa sustatzaileak egoki iruditzen bazaio.



El bacalao de los maestros

sagardoa **gaitzak**


Sagastien katarroak

Gizakiok gaixotzen garen bezalaxe gaixotzen dira sagastiak ere. Sagardogileek kontuz ibili behar izaten dute sagastiek harrapatzen dituzten gaitzekin eta horiek sendatzeko ematen dizkioten botikekin

◊ Sagardoa egiteko behar-beharrezkoa da sagarra. Baina sagar horiek ezinbestekoa dute onak egotea, alegia gaitzik ez harrapatzea. Hori da, hain zuzen ere, sagardogileen kezka nagusietako bat, beraiek landatuta dituzten sagastiek gaitzik ez harrapatzea. Bestela, sagasti horietatik ateratzen diren sagar ho-

riek ezin dira erabili sagardoa egiteko.

69 gaitz desberdin identifikatuta dauden arren, 12 baino ez dira, benetan sagastiei eragiten dietenak eta horien artean ondo mikroskopikoek eta kripyogamoak eragiten dituztenak dira kaltegarrienak. Gaitz guzti hauek identifikatu dituzten



GAITZ guztien artean, ondorio mikroskopioak eta kripyogamoak dituztenak dira sagarrondoentzat kaltegarrienak. BERRIA

NAFARROAKO SAGARDOTEGIEN ELKARTEA

ALDATZ

Martitxoenea
948 604607

LEKAROTZ

Laraldeia
948 452121



**TXOTX
HASIERA**

LEKUNBERRI

Toki-Alai
948 504057

BERUETE

Txasenekoko Borda
948 396017

BERUETE

Behetxoneko Borda
948 503136

arren, gehienak ez diete kalterik egiten, oreka ekologikoaren barruan daudelako.

Sagarrondo batek zati desberdinak ditu eta gaitz horiek guztiek atal desberdinei erasaten diete: Adaxkei, begiei, enbor eta adarrei, fruituari, hostoei kimuei, loreei, sustrai eta lepoiei. Eraso horren sorreia ere desberdina izan daiteke sortzailearen arabera: akaroak bakterioak, birusak eta fitoplasma, intsektuak, nematodak eta onddoak.

Gaitz horiei guztiei aurre egiteko neurri desberdinak daude. Inguruan ditugun intsektuak lagun dezake. Bi intsektu mota daude, izurriteak sortzen dituztenak eta izurrite horiei aurka egiten dietenak. Izurriteei aurka egiten dietenak sortzaileei erasotzen diete eta bi horien arteko borrokaren ondorioz, askotan gaitza garaitu egiten da. Ikusten den bezala, intsektu guztiak ez dira txarrak izaten landareentzat. Mesedegarriak ere izan daitezke, askotan sagarrondoek harrapa ditzaketen gaitzak ekiditen laguntzen dutelako.

Fitosanitarioen erabilera

Produktu horiek kimikoak izan ohi dira, pestizidak eta antzekoak. Produktu horiek erabiltzerakoan kontuz ibili behar ditugu askotan, sagarrondoarentzako kaltegarriak izan daitezkeelako eta beste kasu batzuetan berriz inguruarentzat edo pertsonentzat. Hauek kontuz ibili behar izaten dira.

Produktu hauek erabiltzeko legezko baimen bat behar da, Eusko Jaurlaritzak ematen duena. Baina, baimen hori lortzeko Nekazaritza Sailak ematen duen homologatutako trebakuntza ikastaroa gaitzizko beharrezkoa da, bestela ezin baitira erabili.

Pestizidak jendeari egin die-

Teatela	Jatorria	Eragarriak	So-gorrina	Phitophtora	Zorri lanigera	Itomera	Oharra	Erabilera
M27 (M13-M9)	East Mailing Ingalaterra	Fruta ematen oso azkar hasten da. Ekoizpen oso ona					Indar osoa ahula	Landaketa oso intensiboak
PAJAM1 Lancep	CEP-CTIFL Frantzia	Fruta ematen oso azkar hasten da, ekoizpen ertaina, kalitate oneko fruituak, kalibre mardula eta ondo koloretzatua					Baldintza edafiko-klimatiko onuragarrientzat gorde	Landaketa oso intensiboak, ereduak barietatearen indarraren arabera egokitu behar dira
PAJAM2 Cepiland	CEP-CTIFL Frantzia							
M9 EMLA	East Mailing Ingalaterra							
M26 (M16-M9)	East Mailing Ingalaterra	M9 ereduak baino ainguraketa hobe					Indar osoa aldatkorra	
MM 106	East Mailing Ingalaterra	Ekoizpen ona					Lehortarekiko oso sentikorra	Landaketa erdi-intensibo edo gutxi-intensiboak
M7	East Mailing Ingalaterra	Ekoizpen oso ona					Lurzoru buztintu eta feskotara zuzendua	
MM 111 Northern SpyxMerton I-793	East Mailing Ingalaterra	Ekoizpen ona					Lurzoru piskat aske, sakon eta ondo drenatuetara zuzendua	
M25	East Mailing Ingalaterra	Indar handia baina ekoizpen egokia					Lurzoru lohitsueta zuzendua	
FRANKOA	Hazia	Indar handia, ainguraketa ona, fruta ematen manto hasten da, ekoizpen ugaria					Oso ondo egoitzen da lurzoru ezberdinetara, baita erdi-purdikoetara ere	Landaketa estensiboak

ITURRIA: GIPUZKOIA.NET

Gutxi sentikorra

Sentikortasun ertaina

Sentikorra edo oso sentikorra



ADAXKEI, enborrei, hostoei eta sagarrondoan atal guztiei erasaten diete gaitzek. BERRIA

PRODUKTUAK

Sagarrondoak sendatzeko erabiltzen diren produktuak oso kaltegarriak dira gizakientzat

zaioketen kaltearen arabera sailkatzen dira:

Arrisku txikiak: ahoz, azalez, edo arnastuta gorputzera sartzen direnak dira. Horiek gorputzari kalte gutxi egi ohi diote. Larritasun nabarmenik ez dutenak bezala katalogatzen dira.

Kaltegarriak: Bide berdinetatik sartutakoak, baina hauek kalte handiagoa egiten diote gorputzari, larritasun mugatuko kaltea gisa katalogatzen dira gisa honetako produktuak.

Toxikoak: Bide berdinetatik sartzen dira hauek ere: ahoz, arnasez edo azalez, eta gorputzari kalte handia sortzen diote; kasu askotan heriotza ekartzera ino. Larritasun handiko arriskua eta hiltzekoa bezala katalogatuta daude.

Oso toxikoak: Ahotik, azaletik eta arnas bideetatik sartzen dira. Oso larritasun handiko arriskua dute eta hiltzeko arriskua duten produktua gisa katalogatuta daude.

Produktu hauekin kontuz ibili behar da ondorio kaltegarriak sortzen dituztelako. Kasu askotan korrosiboak izaten dira, ukitutakoan ehun bizia suntsitu ditzaketenak. Beste batzuk erresumingarriak izaten dira, azala edo mukimintzak ukituz gero hanturak sor ditzaketenak. Sukoiakin eta leherkariekin ere kontuz ibili behar da, gutxien uste dugunean su har dezaketelako. Izakiei sor diezazkieten kalteez aparte animaliei ere sor diezaiokete, lur gainekoei nahiz uretakoei.



KIXKIA
Sagardotegia Erretegia

Urrutia kalea, z/g
31680 OTSAGABIA (Nafarroa)
Tel.: 948 890 517
www.kixkia.com



GIPUZKOA

Abaltzisketa

ZALBIDE 943 652176

Aduna

ABURUA 943 692452
ZABALA 943 690774

Aia

IZETA 943 131693
SATXOTA 943 835738

Aizarnazabal

UZTARRI 943 148321

Altzaia

OLAGI 943 887726

Andoain

GAZTAÑAGA 943 591968
MIZPIRADI 943 593954
TXERTOTA 943 590721

Asteasu

MARTXETAUNDI 943 692222
SARASOLA 943 690283/943 652622

Astigarraga

AKELENEA 943 333333
ALORRENEA 943 336999
ARRIZABALAGA 943 556780
ASTARBE 943 551527
BEREZIARTUA 943 555798
BUENAVENTURA 943 357322
ETXEBERRIA 670 535542/943 555697
GARTZIATEGI 943 469674
GURUTZETA 943 552242
IRIGOIEN 943 550333
LARRARTE 943 555647
LIZEAGA 943 468290
MINA 943 555220
MENDIZABAL 943 555147/943 330167
OIARBIDE 943 553199
PETRITTEGI 943 457188
REZOLA 943 556637
SARASOLA 943 555746
ZAPIAIN 943 330033

Ataun

URBITARTE 943 180119/943 888331

Azpeitia

AÑOTA 943 812092

Beasain

ARTZAI ENEA 943 163116

Donostia

ALBIZTUR 943 211801
BARKAIZTEGI 943 451304
BIDARTE 943 361470
DONOSTIAKO SAGAROTEGIA 943 420421
IGELDO 943 213251
IRIGOIEN 943 361229
ITXAROPENA 943 424576
IZAGIRRE 943 361470
KALONJE 943 213251
SAGASTIBELTZA 943 460333
URKIOLA 943 210168
PLAZA BERRI 943 293000

Errenteria

DONOSTI 943 526041
EGILUZE 943 523905
OARSO 943 515956

Ezkio-Itsaso

LABEKOA 943 722552

Gabiria

KORTA 943 887186

Gaintza

OTENE 943 889848

Hernani

AKARREGI 943 553495
ALBERRO 943 550019
ALTUETA 943 551502
EIZMENDI 943 556405
ELORRABI 943 550388
GOIKO LASTOLA 943 553272
IPARRAGIRRE 943 550328
IRUNTXI 943 555724
ITSAS-BURU 943 556879
LARRE-GAIN 943 555846
OIALUME ZAR 943 552938
OTSUA-ENEA 943 556894
RUFINO 943 552739
ZELAIA 943 555851

Hondarribia

LOKATE 943 645880
SAGARZAZU 943 641641

Ikaztegieta

BEGIRISTAIN 943 652837

Irun

OLA 943 623130

Irura

ERNESTO 943 691432

Itziar

TXINDURRI-ITURRI 943 199389

Lasarte-Oria

OTEGI 943 365029

Lazkao

AMEBI 943 162523

Leaburu

OTAZU 943 670044

Legorreta

AULIA 943 806066

Oiartzun

ADURIZ 943 494353
BALEIO 943 491340
BIDEBITARTE 943 492101
ORDUZELAI 943 491686
TOKI ALAI 943 492120
TXIKI ERDI 943 490678

Olaberria

ETXE ZURI 943 882049
ZEZILIOENEA 943 885829

Ordizia

TXIMISTA 943 881128

Tolosa

EGUZKIZA 943 672613
ISASTEGI 943 652964
ORIA 943 654688
USABAL 943 674316
UZTURRE 943 655772

Urnietia

ALTUNA 943 554917
ARGERATE 943 330726
ELUTXETA 943 556981
EULA 943 552744
OIANUME 943 556683
SETIEN 943 551014

Usurbil

AGINAGA 943 366710
ARRATZAIN 943 580974
ASTIAZARAN 943 361229
EGIOLETA 943 366327
IGUARTE 943 370113
ILUNBE 943 371649/943 371652
SAIZAR 943 362228
URDAIRA 943 372691

Zarautz

ARGOIN-TXIKI 943 890184
ARIZIA 943 130148
TXIKI POLIT 943 835357

Zerain

OTATZA-BEKOA 943 801757



Zain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!
Sagardo Naturala

SAIZAR

Kale-zahar Auzoa, 39 • U S U R B I L

Tel 943 362 228

WWW.sidrassaizar.com



Sagardotegien 2004

Arkil	943 693444		
Arrieta	943 366404 943 361229		
Arriaga	943 725041		
Arriaga	94 4476666 94 4433191 94 4165670 94 4333865 94 4477062 94 4437853 94 4240271 94 4100903 94 4156003		
Arriaga	94 6338039		
Arriaga	94 6816519		
Arriaga	94 6582967		
Arriaga	94 6153602		
Arriaga	94 4571614		
Arriaga	94 6742010		

Gernika	LUMOPE 94 6257830		
Gizaburuaga	LANEKO 94 6842211		
Iurreta	AMEZKETA 94 6813800		
Leioa	ITZEA 94 4601813		
Lezama	LEZAMA 94 4556368		
Markina-Xemein	AXPE 94 6168285		
Mendexa	AURREKO 94 6842233 SEBASTIANEKO 94 6842642		
Mungia	ARITXI 94 6741181 URRUTIA 94 6741446		
Muxika	GOROZIKA 94 6309150 KANDI 94 6258040		
Sopuerta	GARAPE 94 4831867		
Zeberio	ARTANDA 94 6481206		
Zornotza	IBARRA 94 6731100 UXARTE 94 6308815		
NAF. BEHEREA	Lasa		
	ALDAKURRIA 59 371313		

 Sagardo egileak

 Haragia haiek jartzen dute

 Haragia eraman daiteke

 Esertzeko aukera

 Zutik

ARABA	
Aramaio	
 ITURRIETA	945 445385 
Dulantzi	
DULANTZI	945 420386 
Lasarte	
 KUPELTEGI	945 130627 
Lezama-Amurrio	
IARRITU	945 386131 
Gasteiz	
ARMENTEGI	945 132101 
SAGAR TOKI	945 288676 
SOKATIRA	945 140440 
Mendiola	
MENDIOLA	945 133966 
LAPURDI	
Biriato	
 BELOKI	59 206625 
Urruña	
 TXOPINONDO	59 546234 
NAFARROA	
Agoitz	
ERROTA	948 336302 
Aitzoain	
AIZOAIN	948 302279 
Albiazu	
ETXETXOA	948 604691 

Aldatz	MARTINTXONEA 948 604607		
Arbizu	JUANITO 948 460404		
Barañain	AUZMENDI 948 185957 LA CASONA 948 186715 SARALEGI 948 189097		
Beruete	TXASENEKO BORDA 948 396017 BEHETXONEKO BORDA 948 503136		
Burlata	EL BODEGON 948 231458		
Erriberri	ERRIBERRI 948 471116		
Gares	ILZARBE 948 340921		
Iruñea	ELKARTETXE 948 222174 IPARTXO 948 246478 IRUÑAZARRA 948 225167 IRUÑEKO SAGARDOTEGIA 948 125401 KALEAN GORA 948 152300 KIXKIA 948 890517 MINDEGIA 948 152137 PILPIL 948 190151		
Leitza	ERREKA 948 510325		
Lekaroz	LARRALDEA 948 452121		
Lekunberri	TOKI ALAI 948 504057		
Lesaka	KOXXONTA 948 627503/948 627519 LINDAURENBORDA 948 637212		
Murugarren	ALDAIONDO 948 553218		
Otsagi	IRATI 948 890517		
Tafalla	IÑAKI 948 703653		
Zizur Txikia	MARTINTXO 948 180020		



ELUTXETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA



Sagardo garaian
txotxetik
Urte osoan, gosari,
bazkari eta afariak

Oztaran bailara
URNIETA
Tel.: 943 55 69 81

OTEGI

TOLARE - SAGARDOTEGIA



**TXOTX
DENBORALDIA
URTARRILEAN
HASIKO DA**

Sollaenea Baserría
Ilarraltzueta bidea, 2
☎ 943 36 50 29 - LASARTE-ORIA

ITXASBURU SAGARDOTEGIA



BERTAKO SAGARRA

Tel.: 943 55 68 79

Osiñaga auzoa • Hernani



**TOLARE
SAGARDOTEGIA**



eizmendi



Maixa Eizmendi

Osiñaga auzoa - Tel.: 943 55 64 05 - 616 450 380 HERNANI



☎ 943 55 27 44
**AITOR
IGUAN**

- Urtarrilaren 30etik irekita.
- Astelehenetik larunbatera irekita.
- Larunbatetan eguerdian (aurrez eskatuta)

«Lehiaketa
irabazteak ospea
eta fama ona
ekarri digu»



BITTOR LIZEA

Gipuzkoako Sagardo Txapelketako irabazlea

JON URBE / ARGAZKI PRESS


TOLARE-SAGARDOTEGIA

IPARRAGIRRE

**HERNANIKO
SAGARDOA**

Asteazken, ostegun, ostiral eta larunbatean irekita

OSIÑAGA AUZOA - ☎ 943 55 03 28 HERNANI



✦ Bittor Lizeaga Gipuzkoako Sagardo Txapelketako irabazlea da. Gartziategi sagardotegiko nagusia da eta bertako sagardoa hautatu dute Gipuzkoako sagardo onenentzat. BERRIA berarekin egon da txapelketari buruz eta sagardoari buruz hitz egiten.

